



Irudia: Ibai Gandiaga

Anton Mendizabal

Azalaren egilea



Maidar Uriarte °

Aldiri, 2012, III, 9, 3-4, ISSN 1889-7185
Jasotze-data: 2011-12-28 / Onarpen-data: 2012-1-13

Anton Mendizabal eskultore gisa ezaguna baldin bada ere, berak ez du bere burua artista absolutu gisa ulertzen. Bizitza hainbat txanpak osatzen dutenez gero, eskulturagintza azken 30 urteko kontua “soilik” izan omen da. Aspaldi familiako okindegian langile, gero irakasle ikastolan; beste zenbait lanetan eta saltsatan (Oiartzungo Pagoarte kulturgunea kudeatzen, esaterako) jardundakoa da Anton Mendizabal. Bizitzako atal bakoitzaren osaera nahi eta helburu pertsonaletan oinarritu behar baita, haren aburuz, irakasle-okin-eskultore etiketan baino. Eta bizitzako atalez ari garela, eskulturari eskaini dion tarteaz galdetu diogu.

Argi eta garbi laburbiltzen du berak: Nahiz eta momentuan momentuko gaietara erantzuten saiatu naizen eta beste zenbait gai ukitu ditudan, nagusiki hiru izan dira monografikoki landu ditudanak: 1- Geroaren zantzua euskal kulturari; argizaiotetik abiatuta, cromlech-a bitarte. 1980ko hamarkadan. 2- Pilotaren inguruan. 1990eko hamarkadan. 3- Musikaren inguruan. 2000ko hamarkadan.

Tarteetako bakoitza zantzu pertsonal edo biografiko baten harira sortutako lan batekin abiatzen da. Garai bertsukoak dira hiru lan horiek, baina, segidan zetorkien lan-ildoak, ordea, kronologikoki garaian garai garatu du.

Hastapenak

Lehenak: “Artisau” lanetan nabilelarik, eskuetan nuen “argizaiolak” eta bere mezu misteriosu eta sakonak bultzatu ninduten argizaiolaren interpretazioan murgiltzera. Sentitu nuen eskulturagintza izan zitekeela nire adierazpide sakon bat benetan interesatzen zitzaizkidan gaietan aktiboki murgiltzeko. Argizaiolaren lehenengo interpretazio gisan, eskulturatxo bat egin nuen (Argizaiola BAT. 1982).

Bigarrenak: Beste gai batzuek ere erakartzen ninduten, ordea. Nire aita pilotaria izanik, Donostiako Gros frontoira eramaten ninduen ume nintzelarik bere entrenamenduetara. Bakarrik gelditzen nintzelarik frontoian, haren argilunaren, espazioaren eta oihartzunaren oroimen sakonak bizi-bizirik zirauen, eta berehala eskultura batera eramane nuen (FRONTELA: frontoiestela. 1983).

Hirugarrenak: Musika-entzule amorratua nintzen eta nire ametsa orkestra-zuzendaria izatea izan zen gartzetan. Bizitzak ez ninduen horretara bideratu baina bat-batean konturatu nintzen

agian eskulturaren bitartez *musikalari* bihurtu nintekeela. Froga moduan eskulturatxo bat egin nuen (PARSONS. 1983).

Hiru gaiak niretzat sakonak zirenez gero, bakoitza aparte lantzea erabaki nuen eta behar zuen denbora ematea. Gai bakoitzaren-tzat hizkuntza propioa lantzen saiatu nintzen.

Artisautza. Euskal folklorearen ikono eta sinboloen erre-pikapertasuna

“Artisautza” hitzaren esanahia oso zabala da, eta esanahi horren inguruan makina bat eztabaida ere badago. Hasi eskuz eta banan-banan eginiko gazta edo txorizoetatik, prototipo berritzaile baten sorkuntzaz burututakoraino, denari artisautza esaten zaio. Artisauak artea egin dezake, sorkuntza-prozesu batean murgiltzen denean. Era berean, artista zenbaitetan artisau bihurtzen da bere estetikaren bariazioak behin eta berriro errepikatzen ditueneko edo bere “multipleak” eta “serieak” egiten ditueneko. Uste dut, ordea, badagoela oinarritzeko alderdi bat artisautza definitzerakoan: esku-lana, alegia. Ofizioarekin lotura du horrek. Agian artistari ez zaio hainbeste ofizioa eskatzen, ez interesatzen ere.

Ofizioa, edo egun esaten zaion bezala know-howa, tailugilea zen osabarekin ikasi zuen eta betiere oso erabilgarria izan zaio bere lan-historian. Ofizioa eskuen erabilerekin lotzen du, norberaren parte-hartzea ziurtatzeko. Beti, tamaina edo materiala dela eta ez dela, ezin erabili baditzake ere. Artisau lanbide honetan murgildu zen hainbat faktorek eraginda, euskal artisautzaren boom garaian, etnografiarekiko erakarpenak bultzatuta. Errepikapenaren eta saturazioaren gurgpilean sartu zela sumaturik, etaparen amaiera markatzen du SUTAR (cromlech-a, 1995) lanaren bidez. Eskultura horren bikoizketa handia, Oiartzungo hilerrian dago 2009az gozotik.



Eskultura interaktiboa. Olivier Messiaen (1908 - 1992) frantziar musikagilearen obrei buruzko inprentazioen "soinua soin" seriekoa. Kobrea. 250 x 75 x 70 cm



Oiartzunen kokaturiko behin betiko eraikuntza. 2008. 500 x 245 x 275 cm. 8 zentimetroko burdin txapa. Errealizazioa: Justo Erimias

Frontoia eta pilota. Espazio abstraktua espazio fisiko bilakatzeko prozesua.

Prozesu intelektualak hasiera bat du. Gaia hor dago eta zuk gaiarekiko duzun sentipenarekin hasiera ematen diozu prozesuari. Gaiak zure baitan interpretatzen hasten zarenean, erabateko mundu abstraktu batean sartzen zara. Zure baitan sortzen den espazio abstraktu horretan lehen marrazkiak eta zirriborroak mugitzen hasten dira eta zentzua hartu nahian dabilta. Mirari txiki bat gertatu ohi da, eta zirriborroa bizitza propioa hartzen hasten da. Zirriborroa hasten da orduan agintzen; jakin egin behar da eskulturaren martxa jarraitzen, lagundu egin behar zaio. Azkenean, noizbait ere (momentu zaila hau) planto egin beharra dago. Jokoa amaitu da eta maketa bat osatu dugu. Hemendik aurrera, zirriborroak beste zentzu bat hartuko du eta egilearen baitako espazio abstraktu-tik, konkretura pasatuko gara eta tamaina, materiala, kokapena eta abar erabaki beharko ditugu. Bigarren pauso hau batzuetan oso erraz ematen da, eta beste batzuetan, berriz, ez da gainditzen, eta maketa bere horretan gelditzen da, maketa moduan, betirako.

Pilotaren eta frontoiaren inguruko 2. lan-ildo, Pilotaz Egitasmoaren bidez landu eta jorratu zuen. Tarte honen amaiera gisa Azkoitian dauden Oteiza frontoi-taldea aipatzen du, Carlos Lopez de Ceballos arkitektoarekin batera lankidetzan garatua 2000-2006 artean.

Azkoitiko frontoiak. Pilotari eskainitako tartearen amaiera itoa. Arkitektura ala eskultura.

Gaia frontoi-tipologia ezberdinen bilduma egitea zen, bai modu sinbolikoan bai modu praktikoan ere. Euskal Pilotaren eta lurraldearen (sei lurraldeak) sinboloa izan behar zuen; Oteizari omenaldia ere bai. Bestetik praktikotasuna; erabilgarria izatea, pilotaren parke publiko bat osatzea, popularrak izatea, erakargarria gertatzea, espazio jakin batean uztartzea. Esan dezaket hasieratik lan honen prozesuan bi alderdiak batera landu ditudala; sinboliko-estetikoa eta praktikoa batera. Pilotariak espazioan murgildu eta pilotakaden, mugimendu, soinuen eta abarren bitartez harekin harreman aktiboan

jartzea izan da helburuetako bat. Kontenplazioan eta argi-itza-len arteko isiltasunean murgiltzeko aukera ematea ere beste helburu bat izan da. Nola definitu? Eskultura arkitektonikoa? Arkitektura eskultorikoa? Eta frontoi bat nola definitzen da? Arkitektura hutsa al da, ala eskultura ere bai? Aztertu bestela Oteizaren gogoetak "Velazquez omenaldia" burutzen duenean eta frontoi baten maketa egin duela konturatzen denean.

Azkeneko lan-ildo, Soinua eta Musika. Zein da eskultura horiek sortzeko oinarrizko ideia?

Betikoa da, hau da, objektu baten bitartez espazioarekin harremanetan jartzea. Niri txikitandik asko eragin izan dit musikak. Agian Donosti Zaharreko San Bizente elizan, organo-musika eta koroak zirela medio, eliza eder haren espazio liluragarrian hegan jartzen nintzen erraz.

Espazio-eragilez inguratutik gaude; haizea, argia, arkitektura, objektuak... eta batez ere, nire ustez, musika. Musika batek sor dezake espazioa, zabaldu, estutu, murriztu, ezabatu... Musikoa ez naizenez gero eskulturen bitartez interpretatu nahi izan dut musikak niri sortutako espazioaren sentsazioa. Joan-etorriko bidea izan da hori gainera; nik musika-obra batzuk objektu bihurtu ditut, baina alderantziz ere, nire eskultura batzuen inguruan musika egin izan dute zenbait musikarik. Hizkuntza ezberdinak espazio komun batean erabiltzea ez da ezinezkoa, nahiko naturala baizik.

Hirugarren eta azken lan-ildoaren amaiera-lana Akorde izeneko eskultura da. Eskultura interaktiboa izateko pentsatua dago, alegia, ukitzeko pentsatua. Olivier Messiaen organo-jotzailearen lanean hain oinarrizkoa den "erresonantziaren akordea" entzutea lor daiteke, eskulturako hodiak ukimen bidez konbinatzen baditugu.

Informazio gehiago : www.antonmendizabal.com



° Maider Uriarte arkitektoa da eta UPV/EHUren Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren doktoratu aurreko ikerketa-beka onuraduna.